

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

EIBARKO UDALA

*Iragarkia*

Eibarko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko urtarrilaren 9an egingandako bilkuran, honako erabakia hartu zuen:

– Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berrikusteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak onartzea.

Indarrean dagoen Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) behin betiko onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak 2007ko abenduaren 18an, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen 2008ko urtarrilaren 22an.

Egungo plana idatzi zeneko indarraldia gainditu ondoren, Eibarko Udalak azterlan batzuk egiteko agindu zuen, plana berrikusteko abiapuntuko irizpideak zehazte aldera.

Eibarko Udalak, azterlan horien ondorioetan oinarrituz, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (aurrerantzean HAPO) berrikustea erabaki zuen. Eibarko Udaleko Gobernu Batzordeak, 2020ko uztailaren 24an, erabaki zuen HAPOren berrikuspena formulatzeko espedientea hastea eta Herritarren Partaidetzarako Programa onartzea, zeina 2020ko abuztuaren 10eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, 150. zenbakian.

Berrikuspen hori izapidetzeko egungo fasean, plan berria idazteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak ezarri behar dira. Prozedura horren izapidetzean, honako jarduketak egin dira:

Aurrediagnostikoa izeneko dokumentua egin zen, aurretiazko azterlanetatik abiatuta.

Herritarren ekarpenak bildu dira, herritarren partaidetzarako egin diren hainbat ekintzaren bidez jasoak.

\* Gaikako mahaiak, herritarrak ordezkatzeko dituzten elkarte eta taldeekin; mahai horiek edukien arabera antolatu dira.

– Ingurumena eta Jasangarritasuna (2021eko martxoa).

– Hiri-berroneratzea (2021eko apirila).

– Hirigintza inklusiboa (2021eko apirila).

\* Herritarrentzako inkesta irekia, herritarren partaidetzako kanal gisa gaitutako domeinuaren bidez (<https://planorokorra-eibar.eus>), herritarren iritzia zehatzago ezagutzeko.

\* Prestakuntza-saioak, Hirigintza eta HAPO tresna zer diren hobeto ezagutzeko asmoz.

\* Jarraipen-saioak alderdi politikoekin.

\* Saioak Batzorde Aholkulariarekin.

2021eko abenduaren 23an, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aurrerapenaren dokumentua jendaurrean jartzea, hiru hilabeteko epean, 2022ko urtarrilaren 10etik apirilaren 11ra.

AYUNTAMIENTO DE EIBAR

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Eibar, en sesión celebrada el día 9 de enero de 2023, adoptó el siguiente acuerdo:

– Aprobación de los criterios y objetivos que servirán de base para la revisión del Plan General de Ordenación urbana de Eibar.

El vigente Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) de Eibar fue definitivamente aprobado por la Diputación Foral de Gipuzkoa el 18/12/2007 y publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 15 de 22 de enero de 2008.

Superado el periodo de vigencia para el que fue redactado el vigente plan, el Ayuntamiento de Eibar encargó una serie de estudios para determinar los criterios de partida de la revisión del mismo.

El Ayuntamiento de Eibar decidió, en base a las conclusiones derivadas de estos estudios, revisar el Plan General de Ordenación Urbana (en adelante PGOU). La Junta de Gobierno del Ayuntamiento de Eibar, en fecha 24 de julio de 2020, acordó iniciar el expediente para la formulación de la revisión del PGOU y aprobar el Programa de Participación Ciudadana, que fue publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 150 del 10 de agosto de 2020.

En la fase actual de la tramitación de esta revisión corresponde la adopción de los criterios y objetivos que servirán de base para la redacción del nuevo plan. En la tramitación de este procedimiento se han realizado las siguientes actuaciones:

Se elaboró el documento de Prediagnóstico a partir de los Estudios Previos.

Se han recogido las aportaciones de la ciudadanía, recibidas a través de las diversas acciones de participación ciudadana llevadas a cabo.

\* Mesas temáticas con asociaciones y grupos representativos de la ciudadanía organizados en aspectos temáticos.

– Medio Ambiente y Sostenibilidad (marzo de 2021).

– Regeneración urbana (abril de 2021).

– Urbanismo inclusivo (abril de 2021).

\* Encuesta ciudadana abierta a través del dominio habilitado como canal de participación ciudadana (<https://planorokorra-eibar.eus>), con el fin de conocer con más detalle la opinión ciudadana.

\* Sesiones formativas para ofrecer un mayor conocimiento de lo que es el urbanismo y la herramienta del PGOU.

\* Sesiones de seguimiento con los grupos políticos.

\* Sesiones con el Consejo Asesor.

El 23 de diciembre de 2021 la Junta de Gobierno Local acordó someter a información pública el documento de avance del Plan General de Ordenación Urbana durante el plazo de tres meses, desde el día 10 de enero hasta el día 11 de abril de 2022.

Aurrerapenaren dokumentua jendaurrean jartzeko iragarkia 2022ko urtarrilaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, eta urtarrilaren 5ean el Correo Españolen eta Berria egunkarietan.

2022ko urtarrilaren 25ean, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia-aren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen-aren Kalitatearen Zuzendaritzari eskatu zitzaion Ingurumen Azterketa Estrategikoaren Irismen-Dokumentua egin zezala, eta aurrerapena igorri zen hasierako dokumentu estrategikoarekin batera.

Antolamendurako Batzorde Aholkulariak, 2022ko martxotik ekainera egindako hainbat saiotan, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentua ezagutu eta horren inguruko iritzia eman du.

Jendaurrean jartzeko prozesuaren ondorioz, parte-hartzeko jardueretan jasotako ekarpenez gain, 43 iradokizun jaso ziren guztira.

2022ko maiatzaren 3an, Ingurumenaren Kalitatearen zuzendariak ebazpena eman zuen, zeinaren bidez HAPOren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua formulatzen den. Harekin batera, kontsultatutako administrazio publikoaren informea igorri ziren.

Erredakzio-taldeak txosten bat egin zuen 2022ko uztailean, zeinean zehazten diren iradokizunen edukiak, eta iradokizun horiei planteatutako erantzunak. Iradokizunak egin zituztenei erantzuna helarazi zai.

Parte-hartze publikoan egindako ekarpenak eta jasotako txostenak ikusita, irizpideen eta helburuen proposamen bat idatzi zen, HAPO egiteko oinarritzat hartuko dena. Dokumentu hori 2022ko azaroaren 11n aurkeztu zen, Planaren berrikuspenaren jarraipen-mahaian, eta talde politikoei helarazi zitzaion, ekarpenak jasotzeko. Horren guztiaren emaitza da Irizpideen eta Helburuen behin betiko bertsioa, I. eranskinean doana.

Irizpideak eta helburuak ezartzeko eskumena duen udal-organismoari dagokionez, kontuan hartu behar da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikulua, zeinak Osoko Bilkuraren eskudantzien artean, honako hau jasotzen baitu:

«Plangintza orokorrari hasierako onarpena ematea, eta planen udal-irizpideen amaiera onartzea».

Beraz, plangintzaren berrikuspenaren irizpide eta helburuen dokumentua onartzea ez dagokio Osoko Bilkurari, eta, beraz, lege horren 21.1 s) artikuluan jasotako hondar-klausularen arabera, alkateari dagokio. Eibarko Udalaren kasuan, eskumen hori Gobernu Batzordeari eskuordetu zitzaion, Alkateak 2021eko martxoaren 15ean emandako ebazpenez.

Azaldutakoa kontuan hartuz, Hirigintzako Batzorde Aholkulariak, Telleria andrearen aldeko botoarekin eta de la Hoz jaunaren eta Baranguan andrearen abstentzioekin, honako erabakia hartzeko proposatzen dio Gobernu Batzordeari:

**Lehena.** Onartzea Eibarko HAPOren berrikuspena idazteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak.

**Bigarrena.** Honako erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, adieraziz irizpide-egintza bat dela, zeinaren aurkez ezin den berrezartze-errekurtsorik jarri.

**Hirugarrena.** Jendaurrean jartzea irizpide eta helburuen dokumentua, eta baita ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua ere, udal-webgunean (www.eibar.eus) eta HAPOren berrikuspenaren webgunean (www.planorokorra-eibar.eus) argitaratuz.

Eibar, 2023ko urtarrilaren 10a.—Jon Iraola Iriondo, alkatea.  
(110)

El anuncio de la exposición al público del documento de Avance fue publicado el 10 de enero de 2022 en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y el 5 de enero en el Correo Español y en el periódico Berria.

El 25 de enero de 2022 se realizó la solicitud a la Dirección de Calidad Ambiental del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco para la emisión del Documento de Alcance del Estudio Ambiental Estratégico, remitiendo el avance junto con el Documento Inicial Estratégico.

El Consejo Asesor de Planeamiento, en varias sesiones celebradas de marzo a junio de 2022, ha conocido e informado el documento de Avance de la Revisión del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU).

Como resultado del proceso de audiencia pública, además de las aportaciones recabadas en las actividades participativas, se recibieron un total de 43 sugerencias.

El 3 de mayo de 2022 se dicta resolución por el Director de Calidad Ambiental por la que se formula el Documento de Alcance del Estudio Ambiental Estratégico del PGOU. Junto al mismo se remitieron los informes de las Administraciones Públicas consultadas.

El equipo redactor elaboró un informe de fecha julio de 2022 en el que se detalla el contenido de las sugerencias y la respuesta planteada a las mismas. Se ha dado traslado de las respuestas a quienes realizaron las sugerencias.

A la vista de las aportaciones realizadas en la participación pública y los informes recibidos, se redactó una propuesta de Criterios y objetivos que servirán de base para la elaboración del PGOU. Este documento fue presentado en la mesa de seguimiento de la revisión del Plan celebrada el 11 de noviembre de 2022 y trasladado a los grupos políticos para la recogida de aportaciones. Resultado de todo ello, es la versión definitiva de los Criterios y Objetivos que se adjunta en el anexo I.

Respecto al órgano municipal con competencia para la adopción de los criterios y objetivos, hay que considerar el artículo 22.2.c), de la Ley de Bases de Régimen Local de 7/1985, de 2 de abril que entre las atribuciones del Pleno, incluye la siguiente:

«La aprobación inicial del planeamiento general y la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal de los planes».

La aprobación del documento de criterios y objetivos de la revisión de planeamiento no está reservada, por tanto, al Pleno, por lo que en función de la cláusula residual recogida en el artículo 21.1. s) de la citada Ley, corresponde al Alcalde. En el caso del Ayuntamiento de Eibar esta competencia está delegada en la Junta de Gobierno por resolución de alcaldía de 15 de marzo de 2021.

A la vista de lo expuesto, la Comisión asesora urbanismo, con el voto a favor de la señora Tellería, y la abstención del señor de la Hoz, y la señora Baranguan, propone a la Junta de Gobierno la adopción del siguiente acuerdo:

**Primero.** Aprobar los criterios y objetivos que servirán de base para la redacción de la revisión del PGOU de Eibar.

**Segundo.** Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, indicando que es un acto de trámite contra el que no procede la interposición de recurso.

**Tercero.** Hacer público el documento de criterios y objetivos, así como el documento de alcance del estudio ambiental estratégico, mediante su publicación tanto en la web municipal (www.eibar.eus) como en la web de la revisión del PGOU (www.planorokorra-eibar.eus).

Eibar, a 10 de enero de 2023.—El alcalde, Jon Iraola Iriondo.  
(110)